





ARRASATEKO UDALA

Bizkaiko Urtxintxa
Eskola

 Arrasate
aretxabaleta
INSTITUTUA

 3. alea
2001-Ekaina

HEZKIDETZAN
Pausoz pauso

 Paso a paso
En la COEDUCACIÓN

ZAPATUERO
GAZTENAHASTE

DENOK GORPUTZ BERDINA DAUKAGULA USTE DUZU?

BA EZI! DENOK GARA DESBERDINAK. ERAKUTSI ZURE GORPUTZA!

eta zuri zein gustatzen zaizu?



**Denok daukagu gustu desberdina.
Ausartu zurea azaltzen!**

MUNDUA BESTE IKUSPUNTU BATETIK

Heterosexuala al zara?

Mesedez, erantzun ezazu inkesta hau. ANONIMATUA ZIURTATZEN DIZUGU.
INORK ERE EZ DU JAKINGO

1 Noiz deskubritu zenuen zure heterosexualitatea?

- Betidanik.
- Nire nerabetasunean.
- Orain dela gutxi.
- Oraindik pentsatzen ari naiz.

2 Askok kostatu zitzaizun zer zaren onartzea?

- Bai, oraindik ere zama handia da.
- Pixka bat.
- Egia esan, oso gustora nago.

3 Kasu berdintsuak ezagutzen dituzu?

- Bai.
- Ez.
- Ez dakit, jendeak ez du horretaz hitz egiten.

4 Zure gurasoei esatea pentsatu duzu?

- Baietz uste dut; eta ulertuko didatela uste dut. Oso irekiak dira.
- Ez, inoiz ez nieke horrelako zerbait esango.
- Uste dut asko kostatuko zitzaizela onartzea. Euren heziketa oso tradizionala da.
- Jadanik egin dut.

5 Eta zure lagunei?

- Baiezkoan nago, eta ulertuko didatela uste dut, beraietako batzuk ere heterosexualak baitira.
- Ez, inoiz ez nieke horrelako zerbait esango.
- Jadanik esan diet.

6 Noizbait diskriminatu sentitu al zara heterosexuala izateagatik?

- Batzuetan.
- Bai, etengabe.
- Ez.
- Ez, ez baitut esaten zer naiezen.

7 Zenbat aldiz joan zara psikologo batengana zarena onartzen lagun diezazun edota heterosexuala izate-tik alden zaitzan?

- Askotan.
- Tratamenduan nago.
- Berak ere, ez ulertzeko beldur naiz.
- Ez, ez naiz joan "arazo" hau dela eta.

8 Uste al duzu sexu desberdinetako bikote batek familia bat osa dezakeela eta seme-alabak traumarik izan gabe hezitu?

- Bai.
- Ez.
- Aita eta amaren arabera. A ze nolakoak diren batzuk!

9 Zer sentitzen duzu "heterosexual zikina" edo horrelako txatxa edo txiste errezak entzuten dituzunean?

- Min ematen dit eta desagertzeko gogoaz sartzen zait.
- Niri esaten ez didaten bitartean...
- Egia esa, heterosexualak horrelakoak gara.
- Defendatu egiten naiz eta nire modukoak direnak ere defendatzen ditut.



ZERGATIK EZ?